

-

2018ko Osakidetzako kontratazio txostena

2019ko maiatza



www.lab.eus

AURKIBIDEA

SARRERA	0
GARDENTASUN FALTA OSAKIDETZAN	1
GARDENTASUNA ZERBITZU ERAKUNDE BAKOITZEAN	2
DATUEN TRATAMENDUA	3
ZEIN DA "ZERBITZUAREN BEHARRAK" ZURE ESI-AN DUEN PORTZENTAIA?	4
KURRIKULUM BIDEZKO KONTRATAZIOA	7
ZURE KATEGORIA TESTEATU	8
ZERBITZU BEHARREN KONTRATUAK ETA ERAGITEN DUTEN KONTROL FALTA	9
2016-2017 EPE-KO IRUZURRA	10
ZENBAT PLAZA EZKUTATZEN ARI DIRA "ZERBITZUEN BEHARRAK" KONTRATAZIOEN ATZEAN	11
EUSKARA	12
ONDORIOAK	13

Osakidetzak 2018. Kontratazio txostena

Ezkutatutako errealitate baten azaleratzea

Osakidetzak pairatzen duen egoera larria da. Beste aldera begiratzeak ez du arazoa konpontzen. Osakidetzako zuzendaritzak oso ondo ezagutzen du egoera eta badaki egiten dituen enplegu eskaintzak ez direla inondik inora behar adinakoak. LAB sindikatutik egindako kontratazio ikerketa sakon hau baliatu nahi dugu hurbiltzen ari garen kolapso egoeraz ohartarazteko. Sektore pribatuak azkar egin du egoera honen irakurketa eta azken urteotako gestio kaskarra baliatuz bere eraso martxan jarri du, Osakidetzak pairatzen duen infradimensio bortitza kontutan hartuz. Hurrengo urteetan ez bada egoera aldatzen, plantila behar bezala dimentsionatuz eta behar adina plaza kopuruko EPEak eginez, egoera konponezin batera iristeko arrisku larria dago. Txosten hau hausnarketarako eta konponbideak bilatzeko gonbidapen bat da, argi dugu egoera iraultzeko giza baliabideen politika osoki aldatu behar dela eta legezko neurriak hartu behar direla langileen kopurua eta jendarteak behar dituen betebeharrak bermatzeko. Bide hori indartzeko, LOREA jarri dugu mahai gainean, Euskal osasun sisteman lan egiten duten kategoria guztiak ratio lege bat eduki dezaten.



Gardentasun falta Osakidetzan.

Ezkutatutako errealitate baten azalera

Aurkezten dugun txosten honek Osakidetzak kontratazioan duen egoera kaotikoa ezkutatzeko ahaleginak gainditu ditu hein handi batean, behar errealei aurre egiteko estruktura falta azalera. Azpidimentsionatutako estruktura batez hitz egin dezakegu okertzeko aukerarik gabe.

Kontratazioa aztertuz argi eta garbi ikusten da **ZERBITZUKO BEHARREN izenean egiten diren kontratuak** ez direla puntualki gertatzen diren beharrei irteera emateko, edo momentu jakin batean dauden lan-karga bereziak estaltzeko. Milaka kasutan urte osoz luzatzen diren kasuak dira, argi utziz behar permanentek estaltzeko trikimailu bezala erabiltzen direla.

Txosten honen datu garrantzitsuenetako bat hauxe da: "zerbitzuaren beharregatik" kontratazioa, Osakidetzak 2018an burututako kontratazio osoaren %52-a da.



Osakidetzako Erakunde Sanitario Integratu (ESI) desberdinek kontratu mota hontaz egiten duten gehiegizko erabilerak badu azalpen bat, Osakidetza prekaritatearen aldeko apustu garbia egiten ari dela. Postu hauek Osakidetzako estruktura barruan egon beharko lukete, berau indartu eta kode berriekin mobilitate eta EPE bidez behin-betiko postuak sortuz, kalitatezkoak eta egonkorak.

Milaka kontratu hauen atzean EPE-ra eta mobilitatera atera beharko ziren 2981 plaza identifikatu ditugu. Dauden Interinitate eta baja begetatiboei (erretiroak, inkapazitateak, heriotzak, etab.) gehituz gero EPE-ra atera beharko lirakeen plaza kopurua emango liguke, gaur egun Osakidetzako estruktura behar errealei egokitzeko 7000 plaza inguruko EPE bat beharrezkoa litzatekeela alegia. Kantitate honi urteko 1000 plaza gehitu beharko genizkioke, hori baita Osakidetzak duen erretiro aurreikuspena.

Beste larritasun bat ere badu ezkutuan dauden 2981 prekario hauen aferak, kontseilaritzak postu guzti hauek desagerraraziko balitu, hurrengo egunean zuzendaritzak esan lezake estrukturak ez duela inolako murrizketarik eduki. Guzti hau argi eta garbi egoeraren gainean dagoen sektore pribatuari egin dakioke mesede.

Gaia konplexua da, **eta konponbidea giza baliabideekin azken urteetan egin ez den politika berri eta ausart batean datza.** Postu hauek estrukturan sartzea (plaza kodea ezartzea) sekulako onura ekarriko luke, kontratazio prozesua sinplifikatu, gestio administratiboan gastua murriztu eta **%35-40ko behin-behinekotasun jasanezina duen plantila bermatzen lagunduko luke.**

Soluzioa prozesu berrien gardentasunean oinarritu beharko du, ez orain arteko prozesu ilunetan. Euskal osasun sistemaren gidaritza hartu berriei ausart jokatzera animatzen ditugu, behar diren osasun erreformak egin eta osasun zerbitzu publiko, doako, unibertsal, eta kalitatezkoa bermatzeko pausuak eman ditzaten. Errealitatea ezkututzen duten analisiek ez gaituzte soluzio batera eramango.

Errealitate hau ez du LAB-ek soilik salatzen, Europako instituzio ezberdinek ere Espainiar Estatuak kondenatu dute kontratazio mota batzuen gehiegizko erabileragatik eta pairatzen duen behin-behinekotasun izugarriagatik. Osakidetza guzti honen erakusle argia da.

GARDENTASUNA ZERBITZU ERAKUNDE BAKOITZEAN

Zure esi-ko gardentasuna konproba ezazu

Hurrengo grafikoan zerbitzu erakunde bakoitzaren gardentasuna konprobatu daiteke. Bertan alde sozialari bidalitako txostenetan ESI bakoitzaren datu izkutatze ahaleginak ikus daitezke. Gehienetan gardentasunak ez du inolako lekurik eta datu ezkutatze saiakera agerikoa da

ZERBITZU ERAKUNDEA	KATEGORIA ETA IRAUPENA	UNITATEA	LANPOSTU KODEA	IZENDAPENAREN ARRAZOIA	KONTRATATUAREN HE	TXOSTENAREN FORMATUA
ARABAKO ESI						EXCEL
ARABAKO ERRIOXAKO ESI						HTML
ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREA						PDF
GORLIZKO OSPITALEA						HTML
SANTA MARINA OSPITALEA						HTML
BARAKALDO-SESTAKO ESI						PDF
BARRUALDE-GALDAKAKO ESI						HTML
BILBAO-BASURTOKO ESI						HTML
EZKERRALDEA-ENK-GURUTZETAKO ESI						ESKANEATUTAKO KOPIA
URIBEKO ESI						EXCEL
BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREA						EXCEL
DONOSTIALDEKO ESI						PDF
GOIERRI-UROLA GARAIOKO ESI						EXCEL
BIDASOAKO ESI						ESKANEATUTAKO KOPIA
DEBABARRENEKO ESI						PDF
DEBAGOIENENKO ESI						PDF
TOLOSALDEKO ESI						EXCEL
EMERGENTZIAK						ESKANEATUTAKO KOPIA
GIPUZKOAKO OSASUN MENTALEKO SAREA						PDF

*LAB-ek kontratazio txostena formatu ulergarrian eta gardentasunez jasotzeko beharraren inguruan egindako salaketa eta eskari ugariren ondoren , Osakidetza ESI guztietan formatu bereko txostena bidaltzera konprometitu da, gardentasun minimo bat ezarriz.

DATUEN TRATAMENTUA


Kontzeptu argigarriak

- 1. Goiko taulan ikusi daitekeenez, alde sozialari (sindikatuari) bidaltzen dizkiguten kontratazio txostenak ez dira batere gardenak.** Datuen tratamendua gardentasun gehien duten erakundeen txostenekin burutu dugu, plantila estrukturalarekin gurutzaketak eginez, **galdera parlamentarioei emandako erantzunetako datuak baliatuz eta kanpo auditoria ezberdinen datuekin, besteak beste, (oraindik ez daukagun) berdintasun plana garatzekoa, beraz, erabiltzen ditugun datu guztiak administrazioak erraztutakoak dira.**
- 2. Osakidetzak 2017an pasatako datuen arabera, Osakidetzako plantila estrukturala 26710 langilek osatzen dute, haietatik 21500 langile finkoak dira(%61), eta beste 5000 (%14) interinoak.** Aurreko atalean azaldu bezala, hauek kodea duten plazak okupatuz dauden langileak dira soilik, eta plaza hauek dira EPE eta mugikortasunera eraman daitezkeen plaza bakarrak.
- 3. Parlamentuan egindako galdera ezberdinei esker plantila erreal edo “funtzionala” 35.000 eta 37.000 langileen artean fluktuatzen du urtean zehar, ez baita berdina udako hilabeteetan dagoen plantila edo martxoan dagoena.** Estrukturaz kanpoko 10.000 langile horietatik (zerbitzuaren beharrak eta ordezkapenak), **3000 inguruk plaza kodea eduki beharko lukete, urteetan zehar luzatzen diren kontratuak direlako, behar iraunkor bat betetzen dute, horregatik diogu Osakidetzako plantila azpidimentsionatuta dagoela, gutxienez 3000 plazari kodea jartzea falta delako.**

Hurrengo taulan ESI bakoitzaren plantila estrukturala eta plantila funtzionalaren inguruko datuak daude, momentu honetan ESI bakoitzak estrukturaz kanpo dituen langileak ikustarazteko.

ZERBITZU ERAKUNDEA	Plantila ESTRUKTURALA(finko + interinoak)	Plantila ez estrukturalaren estimazioa (ordezkoak + zerbitzuaren beharrak)	Plantila erreal(funtzionala)
ARABAKO ESI	3554	1187	4741
ARABAKO ERRIOXAKO ESI	148	49	197
ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREA	392	131	523
GORLIZKO OSPITALEA	341	114	455
SANTA MARINA OSPITALEA	337	112	449
BARAKALDO-SESTAKO ESI	882	294	1176
BARRUALDE-GALDAKAKO ESI	2380	794	3174
BILBAO-BASURTOKO ESI	3588	1197	4785
EZKERRALDEA-ENK-GURUTZETAKO ESI	4438	1482	5920
URIBEKO ESI	971	325	1296
BIZKAIKAKO OSASUN MENTALEKO SAREA	943	315	1258
DONOSTIALDEKO ESI	4676	1561	6237
GOIERRI-UROLA GARAIO ESI	814	272	1086
BIDASOAKO ESI	570	190	760
DEBABARRENEKO ESI	679	226	905
DEBAGOIENENKO ESI	527	176	703
TOLOSALDEKO ESI	185	62	247
GIPUZKOAKO OSASUN MENTALEKO SAREA	167	56	223
EMERGENTZIAK	270	90	360
TRANSFUSIO ETA GIZA EHUNEN EUSKAL ZENTROA	87	29	116
ZERBITZU ZENTRALAK	761	253	1014
GUZTIRA	26710	8916	35626

Hurrengo grafikoan Osakidetzako plantila erreala ageri da, berdez sustituzioak, hauek fluktuatu egiten dute urtean zehar, beraz erdibideko baloreak hartu ditugu. Beste kasuetan portzentaia bere horretan mantentzen dira urte osoan, **koderik gabeko 2981 plaza hauek aldaketarik Gabe mantentzen dira urte osoan naiz eta Osakidetzak hauek ezkutatzeko saiakera egin.** Hau da txosten honekin agerian uzten dugun datua.



*iturria: 2017an Osakidetzak emandako plantila datuak eta legebiltzarra.


zein da “zerbitzuaren beharrak” zure ESIan duen portzentaia?

Kaosa grafiko bidez irudikaturik


“zerbitzuaren beharrak” izenpean egiten den kontratazioa kasu berezietan egoerari aurre egiteko diseinatua dago, adibidez gripe kasuak ugaritzen direnean edo denbora jakin batean gertatzen den lan pilaketa bereziari aurre egiteko.

Hurrengo grafikoetan ikus daitekeenez, kontratu mota honek ikerketa Aurrera eramatea lortu dugun ESI gehienetan kontratazioaren %50-a gaintzen du. Erakunde sanitario batzuen gardentasun faltaren ondorioz, kontratazio txostenen egoera dela eta edo ikerketa oztokatzen duen formatuengatik, ezin ditugu ESI guztien datu zehatzak eskaini, baina bai estimazio nahikoa zehatz bat, non kontratazio mota honek kontratazio osoaren %52 betetzen duen.

Datu honek argi eta garbi erakusten du kontratazio mota hau ez dela bere eginbeharra betetzeko erabiltzen, estrukturari egon beharko luketen plaza permanenteak betetzeko baizik.




GOIERRI-UROLA GARAICO ESI




- ZERBITZU BETEBEHARREN KONTRATUAK (Egiturak betetzen ez dituen beharrak)
- KONTRATU BETEBEHARRAK (baimenak, oporrak,bajak...)

DEBAGOIENeko ESI




- ZERBITZU BETEBEHARREN KONTRATUAK (Egiturak betetzen ez dituen beharrak)
- KONTRATU BETEBEHARRAK (baimenak, oporrak,bajak...)


URIBEKO ESI




- ZERBITZU BETEBEHARREN KONTRATUAK (Egiturak betetzen ez dituen beharrak)
- KONTRATU BETEBEHARRAK (baimenak, oporrak,bajak...)



Txosten hau egiteko datuak biltzearekin batera, ESI bakoitzak kontratu “koiuntural” edo “zerbitzuaren beharrak” direlakoak ezkutatzeko erabilitako trikimailuak atentzioa deitu digute. Kasu argi bat Donostialdea ESI-an erabilitako amarrua da. Lehen begiradan, kontratu mota hauek beste ESI-etan baina maila baxuagoan erabiltzen direla dirudi, baina arreta pixka batekin birpasatuz gero, “hainbat hutsegiteren ordezkapenak” kontratu mota beste ESI-ekin konparatuz bikoitza baina gehiagora igotzen da. Datu arraro hauek aztertzer pasatzen garenean, ohartzen gara “hainbat hutsegiteren ordezkapenak” kontratua “zerbitzuaren beharrak” edo kontratu "koiuntural"-en gehiegizko erabilera estaltzeko erabiltzen dela. Ezinezkoa da “Hainbat hutsegiteren ordezkapenak” izendapeneko kontratuekin urte osoa betetzea ehunka kontraturekin. Iruzur honi mozorroa kendu ondoren, Donostialdea ESI-ko “zerbitzu beharren” kontratuak totalaren %48^a direla egiaztatzen dugu. **Trikimailu hau Arabako osasun mentaleko sarean errepikatu dute, LAB-ek bertako [2017ko kontratazio txostena](#) publiko egin eta segidako urtean.**




BILBAO-BASURTOKO ESI



- ZERBITZU BETEBEHARREN KONTRATUAK (Egiturak betetzen ez dituen beharrak)
- KONTRATU BETEBEHARRAK (baimenak, oporrak, bajak...)

GAINONTZEKO ZENTROAK



- ZERBITZU BETEBEHARREN KONTRATUAK (Egiturak betetzen ez dituen beharrak)
- KONTRATU BETEBEHARRAK (baimenak, oporrak, bajak...)

Kurrikulum bidezko kontratazioa

Ez berdintasunik, ez meriturik, ez gaitasunik

Kontratazio listak agortzen direnean, beharrak asetzeko listaz kanpoko jendearekin bete behar dituzte beharrezkoak diren lanpostuak. Momentu horretan jartzen da martxan kurrikulum bidezko kontratazioa. LAB-ek aspalditik salatu du kasu hauetan gertatzen den protokolo falta, kontratazio mota hau iruzurrentzako beste sarrera bat delako, ez dira berdintasuna, kapazitateak eta merituak errespetatzen.

LAB-ek Arabako ESIko 2017ko kontratazio txostena publikatu zuenetik, Arabako ESIak kurrikulum bidezko kontratazioaren datuak ukatu dizkigu, funtzio publikora sartzeko iruzurra estaltzeko asmoz. Badakigu ESI batzuetan, kategoria zehaztuz kontratatuzko, LAB-ek eskatu bezala, publikatu Gabe dagoen azken EPE prozesuko listatik deitzen ari direla. Baina hau ez da soluzioa, soluzioa plantila ondo dimentsionatzea da, EPE prozesuak azkartu eta listak bukatuko balira berauek ireki denentzako irizpide eta protokolo berdin batekin. Kurrikulum bidezko kontratazioetan agerikoa da herritarrei zerbitzu elebiduna eman diezaketzen pertsonetikiko Begirune falta, behin baina gehiagotan salatu dugu egoera hau inolako erantzunik jaso gabe.

ZURE KATEGORIA TESTATU

Kategoria guztiak kolpatzen dituen jardute indiskriminatua

Hurrengo grafikoan kategoria bakoitzak pairatzen duen kontratazio egoeraren estimazio zehatz bat burutu dugu. Datu hauek Arabako ESI-an 2017 eta 2018an egindako 30.000 kontratuen gainean burututako ikerketa bat da, eta zerbitzu publiko osora estrapolatu daiteke, **lehen arretako datuak ere barneratzen baititu. Hauek dira ikertutako 30.000 kontratu hauen emaitzak:**

CATEGORIA	ZERBITZUAREN BEHARRAK BETETZEKO KONTRATAZIOAREN % (PLANTILAREN INFRADIMENTSIOA DELA ETA)
ADMINISTRARIA	%31
OSASUN MENTALEKO ERIZAIN LAGUNTZAILEA	%85
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	%56
FARMAZIAKO LAGUNTZAILEA	%61
ERIZAIN LAGUNTZAILEA	%56
ZELADOREA	%44
ZERBITZU OROKORRETAKO GIDARIA	%100
SUKALDARIA	%47
OPTIKA ETA OPTIOMETRIAKO DIPLOMATUA	%86
ERIZAINA	%56
OSASUN MENTALEKO ERIZAINA	%37
MEDIKUA	%82
FARMAZIO OSPITALARIOKO MEDIKUA	%58
PSIKOLOGO KLINIKO MEDIKUA	56%
FISIOTERAPEUTA	%22
ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETAREN ATALBURUA - B	%100
EMAGINA	%39
INSTALAZIOEN MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALA	%39
ZERBITZUETAKO LANGILEA	%33
ELEKTRIZITATE MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALA	%0
ANAT. PATOLOGIA ETA ZITOLOGIA TEKNIKARIA	%52
DIETETIKA TEKNIKARIA	%73
OSASUN-DOKUMENTAZIO TEKNIKARIA	%100
INFORMATIKA TEKNIKARIA	%73
ELEKTROMEDICINA INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA	%100
LABORATEGIKO TEKNIKARIA	%71
MANTENTZE LANAETAKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA	%0
ERRADIODIAGNOSI- TEKNIKARIA	%46
ERRADIOTERAPIA TEKNIKARIA	%44
GOI-MAILAKO EKONOMIA-TEKNIKARIA	%100
ANTOLAKUNTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	%100
SEGURTASUN ETA OSASUNEO PREBENTZIOKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA	%100
TERAPEUTA OKUPAZIONALA	3%
GUZTIRA	%55

*Arabako ESIan 2017 eta 2018an egindako 30.000 kontratuetatik ateratako datuak.

Zerbitzu beharren kontratuak eta eragiten duten kontrol falta

Iruzzurari ateak irekitzen dizkion kontratazioa

Zerbitzuen beharren izenean egindako kontratuak orokorrean denbora tarte handiz luzatzen dira. Diogun bezala kontratu hauek behar permanenteei aurre egiteko erabiltzen dira, beraz kasu askotan urteetan zehar luzatzen diren kontratuak dira.

Lehenengo iruzurra: Zerbitzu batean pertsona baten beharra badago postu iraunkor bati aurre egiteko, postu hori estrukturaren barneratu beharko litzake plaza kode batekin, eta mugikortasun edo bakante bezala eskaini, gerora EPE prozesu batera ateratzeko. Hau egiten ez bada zerbitzu publiko ahul eta prekario baten aldeko apustua egiten da.

Bigarren iruzurra: Zerbitzu arduradun eta jefaturen menpe gelditzen da kontratu hauen gestioa. **Kasu askotan kontratu hauek arduradunen inguruko pertsona afinei eskainiak izaten dira iruzurrezko jardunbidez.**

Legeak argi dio 2 urtez postu baten beharra eduki bada, estrukturaren sartzeko aukera aztertu behar dela, eta 3garren urtean estrukturaren sartu. 3 urtez postuan egon eta gero langilea bota eta lan berdina egiteko beste pertsona bat kontratu denaren **makina bat kasu atzeman ditugu. Hau sekulako iruzurra da.**



Bestalde, kontratu hauek luzatzeko aukera arbitrarioaren ondorioz, kontratu mota hau duen langileak bere arduradunei men egitea ahalbideratzen du, kontratua ez berritzearen beldurpean. **Menpekotasun jokabideak elikatzen dituen edozein politika onartezina da, eta funtzio publikoaren sarbiderako berdintasun, meritu eta kapazitate printzipioak apurtzen ditu.**

Kontratu mota hau erakargarria da langile batzuentzat, jasaten dugun prekarizazio eta lan baldintza kaskarrak hobetzeko eta jasanezina den behin-behinekotasun portzentaietik (%36-%40 urta garaiaren arabera) ihes egiteko.

Guk argi dugu honek miseria gehiago ekartzen duela, besterik ez. Osasun sistema publikoa ahuldu eta prekarizazioan sakontzen du, arduradunei langile jakin batzuk saritu edo zigortzea ahalbidetzen du. Badago kaos egoera hau bere boterea handitzeko erabiltzen duenik, bere ingurukoak kolokatzeko eta kontratazioan eduki beharko genuen berdintasuna apurtzeko.

2016-17 EPE-ko IRUZURRA

Zerbitzuaren beharrak eta mediku kategoriak: Filtrazioen abiapuntua

Plantila barruan zabalduak dauden usteen kontra, Medikuen kategoria da kontratazio prekario, iruzurgile eta arbitrarioena duena, kontratazio jardun hauek portzentai altuenekin, modu bereziz pairatzen baitute. **Azken EPE-ak erakusten duen moduan, Medikuen Espezialitaterako sarbidea ez da berdintasun irizpideetan arautzen.**

LAB sindikatutik lan gogorra egin dugu langile hauek funtzio publikorako sarrera berdintasun terminoetan izan dezaten ahaleginduz, onartezinak diren praktika hauek salatuz eta langileek egin dituzten salaketak babestuz.

Zerbitzuen beharregatik kontratazioa %52-an kokatzen bada Osakidetzan, **mediku kategorian** (espezializazio kategoriaren arabera) **%77 eta %100 bitarteko portzentaietan kokatzen da.** Hau da, kontratatutako gehiengoak kontratu prekarioak ditu eta gainera kontratu horiek luzatu edo ez, erabaki subjektiboz gauzatzen da.

Fakultatiboek urteak pasatu behar izaten dituzte meritua eta kapazitatea baina zeozer gehiago frogatzen, 6 hilabeteko kontratuak luzatuz. Ezagunak dira arduradunekin desadostasunak edukitzearen edo haien eskubideak eskatzeagatik luzapenak eten dizkieten kasuak. Dinamika honek arduradunen eskuetan uzten du nor kontratatu eta nori kontratua luzatu.

Eragile eta egoera desberdinek adierazten duten bezala (fiskaltza, Osakidetza zuzendaritzaren

dimisioak, LAB-ek egindako ikerketa estatistikoa, Ovidoko unibertsitateak egindakoa, profesionalen salaketak, gehiengo sindikalak egindako salaketak), kontratazioan gertatzen den entxufismo eta iruzurra **Enplegu Publikoaren Eskaintzaraino iristen da.**

Plantilaren erredimentsionamendu ausart bat egiteko borondatea egongo balitz, osasun publikoan eskaini beharko liratekeen plaza kopurua 7.000tik gorakoa izan beharko luke, langile ebentualek pairatu behar duten presioa arinduz. **Pasatzen den urteko, kopurua 1.000 plazatan gehitu beharko litzake,** urteko erretiroen erritmoak ala markatzen duelako.

Datu hauen inguruan Gogoeta bat egitera gonbidatzen dugu mediku kategoria, iruzurrezko kontratazioa haiek pairatzen baitute gehien, eta haien arduradunak dira nork lan egin eta nork ez erabakitzeko gaitasuna dutenak.



Zenbat plaza ezkututzen ari dira “zerbitzuen beharrak” kontratazioen atzean?

Kontratazio modeloaren porrota eta kaosaren datuak

2018 urtean 118.000 kontratu egin dira Osakidetzan, horietatik 65.000 estrukturak bete ezin dituen zerbitzuaren beharrak kubritzeko izan dira eta beste 53.000 sustituzio desberdinak kubritzeko, lizentziak, baimenak, bajak, eszedentziak, ordutegi murrizketak etab.

Gure ikerketen arabera 65.000 kontratu horien atzean estrukturalizatuak egon beharko luketen 3.000 lanpostu daudela zihurtatu dezakegu. Urte osoz eta denboran zehar luzatzen diren 3.000 postu, iruzur bidez estalirik eta plantila estrukturaletik at.

Osakidetza bezalako instituzio batek urtean 65.000 kontratu zerbitzu beharrak estaltzeko erabiltzen direla asumitu eta onartzea oso esanguratsua da bizi dugun kaosa eta kontratazio modeloaren porrota isladatzeko. Lehenago ere esan dugun bezala, kontratazio modelo hau Europako instituzio eta epaitegi ezberdinetik salatua izan da behin eta berriz.

Erronka berria:
Plantilaren
%55aren
erretiroa.

Dakigun moduan, Osakidetza plantila adindua dago, eta Osakidetza berak onartzen duen bezala **hurrengo 11 urtetan plantilaren %55ak erretiroa hartuko du.**

Plantilaren

zaharberritzeak aurrekaririk gabeko erronka baten aurrean jartzen gaitu eta azken urteetan zuzendaritzak entzungor egin dio prozesu hau behar den ardurarekin gestionatzeko eskariei, egoeraren larritasuna alde batera utziz.

2020an 1080 plazako EPE bat iragarri dute. Kopuru horrek ez ditu azken EPetik gaur arte sortu diren erretiroak ere estaltzen, eskaintza eskas hau guztiz onartezina da LAB sindikatuarentzat. Ulegaitza da hain plaza gutxiko eskaintza bat iragartzea, eta burugabekeria handiena sindikatu batzuek alako eskaintza lotsagarri bati sostengu ematea da.

Gure kalkuluen arabera 2020an gutxienez 7.000 plaza inguruko EPE eskaintza bat beharko litzake, datozen urteetan OPE gehiago egon beharko dutela ahaztu gabe, datozen erretiro erronkei aurre egiteko.

Kontratazio prekario honen atzean Osakidetza mugikortasunera eta EPera atera beharko lituzkeen

3000

plaza ezkututzen ditu. Sortuta dauden bakanteei eta 2028 arte gertatuko diren urteroko 1000 jubilazioei plaza hauek gehitu beharko lizkieke.

Osakidetzak EPE prozesu bat amaitzeko behar duen denbora kontutan hartuko bagenu, gaur gaurkoz 10.000 plaza inguruko EPE bat burutu beharko zen, hurrengo 3 urteetan 3.000 langile gehiagok erretiroa hartuko baitute.

Euskal Osasun Publikoa bueltarik gabeko kalezulo baterantz eramaten ari dira, Osakidetzak asumitu ezingo dituen lanak enpresa pribatuen esku utziz eta osasun publikoa ahuldu eta indargabetuz. Enpresa pribatuek aspaldi egin dute egoeraren irakurketa, beharrezkoak dituzten inbertsioak egin ondoren erasora pasatzeko prest daude multinazional handiak. Gure osasun sistema eta gure lan baldintzak jokoan daude, negozio biribila egin nahi duten putreen begiradapean.

Txosten hau gogoetarako erabili nahi dugu, baina baita ere egoera hau ezagututa bere horretan mantendu nahi dutenak salatzen. Dagoeneko **Herritarren osasunak guzti honen ondorioak pairatzen ditu, baina egoerak okerrera egin dezake eskaintako zerbitzuen kalitatea hobetzeko borondate argirik ez badago.**

Euskara

Betiko kaltetua

Osakidetzak Euskalduntze politikaren inguruan ohitura bihurtu du hitz politikak entzutea, baina tamalez aurrerapenik ez ikustea ere ohikoa da. Euskararen egunean ebentua ugari, Korrikak Euskal Herria zeharkatzen duenean ESI guztien inplikazioa... baina ezkututzen ari diren 3.000 plaza hauek ez dute inolako euskara eskakizunik. Estructura barruan ez daudenez, ez dute inolako hizkuntz eskakizunik bete behar, eta kasu askotan Hizkuntza eskakizun behar argia edukita ere, estrukturalak ez direnez ez dira Euskararen 2. Planean sartzen.

LAB-ek salatu nahi du kontratazio modelo honek euskal gizartearen hizkuntza eskubideen kontra jotzen duela, Euskal gizarteari ematen zaion arretaren kalitatean ondorioak eraginez.

Osakidetzari plantila erredimentsionatzeko deia egiten diogu, Euskara plana kontuan hartuz eta plantilaren euskalduntzearen aldeko pausuak emanez, Euskara batzordeei indar emanez eta erabiltzaileen eskubideak errespetatuak izan daitezen lan egiteko borondatea erakutsiz. Hitz polit gutxiago eta herritarron hizkuntza eskubideak bermatzeko lan gehiago mesedez.

Ondorioak

Kontratazio kudeaketa honek osasun zerbitzuaren egitura gutxiagotzea dakar, onartu ezinezko behin-behineko tasak sortzen ditu, langileen jarrerak aldatzen ditu nagusiei men egitea indartuz, gerta litezkeen pribatizazioei ateak irekitzen dizkio, gure osasun sistemaren izena zikintzen du kalitate maila gutxituz...

Nahikoa da! Bukatu da egoeraren errua Madrilgo gobernuari edo krisiari leporatzea; Eusko Jaurlaritzak baja vegetatibo guztiak (Erretiroak, heriotzak, inkapazitateak...) berritzeko aukera du, osasungintzan berritze-tasa %100koa baita. Beste aldetik, Europako epaitegiek argi ohartarazi dute; onartezina den behin-behineko tasa murriztu beharra dago. 2018. urtetik aurrera ezohiko kontsolidazio EPE bat deitu daiteke. Deialdi hauek ez gauzatzea argi uzten du Urkulluren gobernuak egoera larri honetan daukan ardura.

Osasuna eskubide bat da eta ezin da, azken urteetan egiten ari den bezala, zatikatu eta ahuldu. Autogobernua baliatuz gure osasun zerbitzuaren kalitatea bermatu, eta egun, bertako langileek pairatzen duten egoera prekarioarekin bukatu behar da.

Gaixoak enpresa pribatuetara deribatzen direnean badaude bere burua pribatizaziotik salbu ikusten duten kategoria batzuk, kontutan izan gabe jarduera horretara deribatzen den gaixo horrekin harremana eduki dezakeen langile guztien pribatizazioa suposatzen duela, hori dela eta mehatxu horren salbu egotea pentsatzeak inozokeri eta heldutasun gabezia erakusten du.

LOREA (Asistentzia-taldeen Ratioen Antolamendurako Legea), kalitate eta lan baldintzen kaltetan politikariek Osakidetzan murrizketak ezartzeko aukerak ekiditeko, kalitatezko zerbitzua bermatzeko bete beharrezkoa izango den legea eskatzen dugu. LABek egindako proposamenaren inguruan eztabaida bat irekitzeko beharra azpimarratu nahi dugu.

Osakidetzan egiten dugu lan, baina aldi berean, Osakidetzako erabiltzaileak gara. Erantzukizunagatik kontratazio kudeaketa zuzena eta iruzurrezko praktika guzti hauen bukaera eskatzen dugu.



www.lab.eus